

## **2.- UNITATEA: ITSAS BAZTERREAN**

### **1. TXOKOAK EZAGUTZEN**

Bigarren unitate honetan hainbat gai proposatuko dizkizuegu: Erdi Aroko herri harresitua, portua, nabigatzaileak, lanbide zaharrak eta egungoak, zaborra eta sortu den arazoaren ondorioz birziklapenaren aukera, hedabideak eta abar.

Aurreko unitatea, erromatarren garaian amaitu genuen. Gogora ekar dezakegu erromatarren aurretik nolakoa izan zen herria eta nortzuk izan ziren garai haietako biztanleak.

Gogoratzeko egindako ariketa horren ondoren, hipotesiak egiteko eska diezaiekegu: Zer gertatu ote zen erromatarrekin? Gure artean geratu ote ziren bizitzen edo mundua menderatzen jarraitu ote zuten?

Nortzuk bizi ote ziren erromatarren ondoren? Nolakoa ote zen herria garai hartan?

Garai bakoitzean bizitako lagunek haien arrastoa utzi dute, eta erromatarren garaia ondorengo Erdi Aroak oraindik ere zutik dirauten hainbat eraikuntza eta beste zenbait aztarna utzi ditu gure herrian. Haiei esker jakin dezakegu nolakoa zen herria garai hartan eta bertan bizi zirenak nola bizi ziren.

Itsas bazterrean unitate honetarako sarrera gisa hainbat argazki eskaintzen dizkizuegu. Horietako batzuk herrian daude, baina beste batzuk ez.

Hainbat aukera dituzue jarduera hau egiteko: banaka egin dezakezue, talde txikitik, talde handian, etxeko laguntza eskatuz... zuen gustura.

*JARDUERA: Hainbat argazki dituzu hor behean. Horietako zeintzuk daude herrian?*

*Koadernoko 3. orrialdea.*

### **2. ZER DAKIZU HORIEI BURUZ?**

Argazki horietatik herrikoak zein diren aukeratu ondoren, horiei buruz zer dakiten biltzen ahaleginduko gara.

Ahalik eta informazio zabalena jasotzen ahaleginduko gara: non dagoen, nola duen izena, nortzuek egin zuten, noiz egin zuten, zertarako, gaur egun zer

erabilera duen... eta hortik tiraka jarrai dezakegu: nolakoa ote zen herria garai hartan, nola bizi ote ziren, nola janzten ote ziren, kaleak eta etxeak nolakoak ote ziren... ea denen artean zenbat informazio biltzen dugun!

Lan hori taldean, banaka edo kanpoko laguntzarekin egin dezakegu. Informazioa koadernoan idatz dezakete edo mural bat osa dezakegu denen artean bildutako informazio guztiarekin.

*JARDUERA: Zer dakizu herrian ditugun aztarna horiei buruz?*

*Koadernoko 3. orrialdea.*

### **3. HERRIKO ARMARRIA**

Gainerako herrien antzera, gure herriak ere badu armarrria. Herriak itsasoarekin eta portuarekin izandako iraganeko harremanaren lekuko ere bada armarrria. Bertan, olatuen gainean ageri den gaztelua ageri da. Gazteluaren gailurretik bi hosto sorta irteten dira, eta, gazteluak, bi hosto ditu alde banatan.

Orain arte uste zenez, udaletxeko fatxadan zizelkaturik dagoena zen zaharrena.

Antza, armarrri horrek eraldaketak izan ditu urte hauetan guztietan.

Hala ere, aurkitu zen beste armarrri bat udaletxean dagoena baino ia mende bat zaharragoa dena. Zenbait baserriri onartutako su-egurretarako eskubidearen inguruan 1516ko irailaren 30ean egindako pergamu baten D letrako lehenean ageri da.

*Material osagarria: [Herriko armarrria](#)*

Armarrri horretan, atzealde gorriaren gainean urrezko gaztelu bat nabarmentzen da, zuzen-zuzenean itsasoaren gainean jarria. Ezkerreko aldean bihotz formako hiru hosto ageri dira, eta eskuinaldean izar bat.

Armarrri aldaera horietan guztietan bi elementu dira nagusiak: itsasoa eta harresi barruko herria. Hau da, badia gainean harresiz inguratutako herria.

Bailara osoan zeuden lau herriguneetatik, —Orereta, Elizalde, Altzibar eta Iturriotz—, Orereta zen itsas herri bakarra.

Hurrekin azter ditzakegu armarriak dituen elementuak. Hipotesiak egin ditzakete zergatik agertzen ote diren elementu horiek eta zer lotura aurkitzen ote dioten gure herriarekin.

Nahi izanez gero, ezagutzen dituzten armarren gainean hitz egin dezakegu, ekartzeko eskatu, marrazteko. Nahi adina sakon dezakegu.

*JARDUERA 1: Marrazkilariak armariaren erdia soilik egin ahal izan du. Lagunduko al zenioke armarrria osatzen?*

Jarduera hori proposatzea zailegia iruditzen bazaizue, material osagarrietan baduzue armarrria zuri-beltzean. Fotokopia dezakezue eta hurrei eman margotzeko. Amaitzeko ebaki eta bestearen gainean itsats dezakete

*Material osagarria: [Herriko armarrria \(zuri beltzean\)](#)*

*JARDUERA 2: Itsatsi hemen nahi duzun armarrria.*

*Koadernoko 3. orrialdea.*

## 4. OIARTZUN BAILARA

Irudian ikus daitekeen gisan, Oiartzun bailara lau auzok edo herrixkek osatzen zuten: Orereta, Elizalde, Iturriotz eta Altzibar.

Lauretan, Oreretakoa zen itsasora sarbidea zuen bakarra. Antza, herrixka horretan nautika arloan, batez ere, lan egiten zuten hainbat familia finkatu ziren. Lanerako sena zuten, eta jendartean bizitzeko erakutsi zuten gaitasunari esker, herria antolatzen, gobernatzen eta egituratzen jakin zuten. Jende eraikitzaile eta iaio horrek, ibaiaren abantailak ustiatzen jakin zuten, eta horrela itsasoaren industrian eta burdinolen esparruan hasi ziren.



Garai hartan, 1320. urtean, Oiarso bailara honako auzo edo herrixkek osatzen zuten: Hondarribia, Urantzu (Irun), Elizalde, Altzibar, Iturriotz, Orereta, Lezo eta Pasai Donibane.

Irudian, Oiartzun bailara osatu zuten lau herrixkak dituzue ikusgai.

*JARDUERA: Idatzi Oiartzun bailara osatzen zuten lau auzoen izenak. Koadernoko 4. orrialdea.*

## 5. NAFARROAKO ERREINUKO LURRALDEA

Gaur egungo Gipuzkoa Nafarroako erreinuko lurraldea izan zen 1200. urtea arte, Gaztelak konkistatu zuen arte.

Hala ere, gaur egungo Gipuzkoak ez du zerikusirik orduko Gipuzkoarekin.

Izan ere, garai hartakoak hiru lurraldek osatzen zuten: Aizorrotz (Deba bailara), Ipuzkoa (Getaria hiriburu zuelarik) eta Hernani-Donostia (gure herriko lurrak barne).

Hiru lur horiek Nafarroako tenentziak ziren, Nafarroako erreinuko teniente batek agintzen baitzuen.

Bestalde, hizkuntzari dagokionez ere, hirurak euskararen eremuak ziren: Aizorrotzen bizkaiera, Ipuzkoan gipuzkera eta Hernanin Goi-nafarrera hitz egiten baitzen. Beraz, euskarari dagokionean ere, nafarrak lirateke garai hartako herritarrak.

Idatzietan topatutako Ipuzkoaren lehen aipamena 1025. urtekoa da.

1198ko maiatzaren 20an Gaztelako Alfonso VIII.ak eta Aragoiko Pedro II.ak erabaki estrategikoa hartu zuten: Nafarroa banatzea.

Horretarako Nafarroako konkista hasi zuten, 24 gaztelu bereganatuz: 11 egungo Gipuzkoan, 8 Araban eta 3 edo 4 gaurko Nafarroan.

Urumearen eta Bidasoaren artean Gaztelakoek Donostia, Hondarribia eta Beloagako gazteluak menderatu zituzten.



Beloagako gaztelua Oiartzun bailaran zegoen, Arkaleko haitzetako baten gainean, hain zuzen. Gaur egun ere, gaztelu haren aurriak ikus daitezke haitzaren gainean.

Konkista ondoren, Gaztelak kostako foruak berretsi zituen eta Nafarroako erreinuak hasitako estrategia – hiriak fundatzearena, alegia-, areagotu zuen. Gaztelako agintariak ez baitzuten arrantzaleen indarra galdu nahi.

Ondoren, pixkanaka, hiriak fundatzen jarraitu zuten. Gure herria 1320an fundatu zuten Hiri-Gutunaren bidez, eta Gaztelako erregeek harresiak eraiki zituzten Nafarroari begira.

Beraz, hainbat autorek ondorioztatutakoaren arabera, Nafarroa euskaldun erreinua zen. Gipuzkoa Nafar lurraldea zen, eta 1200. urtean okupatua izan ondoren, mugako eremua balitz bezala erabilia izan zen.

Mugako eremu izaera horren ondorioz, hiriak harresitu egin zituzten, tartean gurea. Helburua, Gaztelak konkistatutako lur berriak Nafarroako erreinutik babestea zelarik.

Gaztelak, bere aldetik, 1512an konkistatu zuen Nafarroako erreinuaren azken eremua. Beste modu batera esanda, 1512an Nafarroako erreinua Gaztelako erreinuaren barne gelditu zen, urte horretan lortu baitzuen Gaztelak Nafarroa erabat konkistatzea.

## **6. HIRI-GUTUNA**

Gaztelako erregeak Hiri-Gutuna eman zion herriari 1320. urtean.

Erregeek izena aldatu zioten herriari, VILLANUEVA DE OIARSO izena ipiniz. Orereta izena, Orre landaretik etorriko litzateke. Beraz, Orereta, orreen lekua litzateke.

Villanueva izen berri hori ez zen sekula errotu. Oreretan, garai hartan, itsas merkantzien zergak kobratzen ziren, errentak izenekoak, eta jendea erreterria deitzen hasi zen, Ondarroa eta Gernikako bi auzoekin gertatu zen gisara.

Agiri horretan, erregeek agindu zuten herria harresitzea eta bailarako gainerako biztanleak Villanuevara bizitzera etortzea. Beraz, agindu horrek garbi erakusten du bailarako gainerako auzoen aurrean nagusitasuna eta lehentasuna eman ziotela.

Agindua ez zen beste auzoetako bizilagunen gustukoa izan.

Itsasoa zen, ezpairik gabe, irizpide nagusia agintarientzat eta bertakoentzat: mendietako burdinolek portuaren beharra zuten, bailarako nekazaritza eremurako ezinbestekoa zen itsas merkataritza eta abar.

Bailarako beste auzoek ez zuten sekula onartu Villanuevaren nagusitasuna. Urte luzeetan liskar ugari izan ziren arrazoi hori zela medio.

*JARDUERA: Falta diren letrak osatzen badituzu, herriaren izen berria jakingo duzu.*

*Koadernoko 4. orrialdea*

## **7. ITSAS BAZTERREKO HERRIA**

Portuko lekurik lasai eta babestuenetako batean garatuz joan zen herria harresiz inguratu zuten erregeren aginduz.

Herriak bazuen portua, baita lonja ere. Gaur egun Foru plaza dagoen lekuan bertan. XX. mendearen amaieran Foruen plazan egin nahi izan zituzten lur azpiko aparkalekuak eraikitzen hasi zirenean, lurrazala zulatu orduko topo egin zuten itsasoarekin. Han agertu ziren ere itsasora jaisteko eskaileraren mailak eta itsasontziak lotzeko zirgiloak ere.

Itsasoari lotuta garatu zen herria hein handi batean. Ontziolak ugaritu ziren, itsasgizon ospetsuak sortu ziren eta itsasoko merkantzia garraioa izan ziren, besteak beste, herriari etorkizun oparoa eskaini ziotenak.

Oraindik ere, zutik dirauten hainbat eraikin eta kale zaharrenetako ateburuetan dauden armarrak zaharrak horren guztiaren lekuko dira.

Horiek guztiak ekarri nahiko genituzke hona. Horretarako, aitzakia gisa, itsasoak bustitzen duen herri harresituaren grabatua eskaini nahi dizuegu.

Irudi horren behaketa egitea proposatu nahi dizuegu. Erdi Arokoa izan arren, gaur egun identifikatzen errazak diren elementuak eskaintzen ditu. Baliteke gure ikasleetakoren bat ageri diren etxe horietako batean bizitzea, edo hor bizi den norbait ezagutzea. Interesgarria litzateke horren inguruan jardutea.

Maialen eta Xanti ere iritsi dira Erdi Arora. Haiek emandako azalpenak irakurri eta aztertu ondoren, jarduera egiteko prest izango ditugu ikasleak.

Jarduera burutu ondoren ikasleei eska diezaiekegu margotu dituzten elementuen inguruan azalpenak ematea: zer den, zergatik margotu duten, ba ote dakiten bere izena...

*JARDUERA 1: Behatu arretaz marrazkia. Ezagutzen dituzun elementuak kolorezta itzazu.*

*JARDUERA 2: Idatzi identifikatu dituzun elementuen izenak*

*Koadernoko 5 orrialdea.*

## 8. HARRESIZ INGURATU ZUTEN HERRIA

Aurkeztu dugun marrazkiak eskaintzen duen edertasuna eta zehaztasuna handia iruditu zaigu. Beraz, marrazkia, batik bat, behaketarako eskaini nahi dizuegu.

Web orriko material osagarrietan irudi bera aurki dezakezu baina hainbat zenbakidun erreferentziarekin. Haurrekin behaketa lana zuzentzeko lagungarria gertatuko zaizue.

*Material osagarria: [Harresiz inguratutako herrian barna](#)*

Arretaz erreparatuta, egun zutik dirauten hainbat eraikuntza bereizi ahal izango ditugu. Bestalde, begi kolpe batez ikus ahal izango dugu itsasoak inguratzen zuela herria eta portua herriaren bihotzeraino heltzen zela, ia.

Harresiari erreparatuz gero, garbi ikusten da haren trazaketa, baita herrian sartzeko zeuden ateak ere. Nafarroako eta Frantziako ateak babesteko eraiki zuten bastioia ere argi ikus liteke.

Ibaiaren gaineko zubia Ugarritzako zubia da, gaur egun izen hori du, oraindik.

Egun zumardian dagoen etxe lerroa ikus liteke, haien aurretik ubidea doa. Lerroko azken etxea Beingoerrotaren zen, errota, izenak esaten duen gisa. Ubide



hori errotarako zen. Egun zumardiaren azpitik igarotzen da. Errota desagertu zen, baina haren lekuan eraikitako etxearen aurrealdea ere, gainerakoena baino aurrerago ateratzen da.

Marrazkian itsasoa noraino heltzen zen ikus liteke, Pontikaraino, hain zuzen. Donostiarako bidea nondik zihoan, egungo Galtzarabordatik barrena eta abar.

Bestalde, irudian hainbat lanbide atzeman daitezke: nekazaritza, ontzigintza, portuko lanak eta beste.

Behaketaren ondoren proposatzen den jarduera jolas baten antzekoa da. Marrazkia behatuta, Erdi Aroan gure herria nolakoa zen deskribatzea, alegia.

*JARDUERA: Nolakoa zen gure herria?*

*Koadernoko 6. eta 7. orr.*

## **9. HERRI HARRESITUA**

Harresiz inguratu zuten hiria. Harresi barruan geratu zen herriari erreparatuko diogu orain.

Garai hartan, oraindik suzko armarik ez zegoenez, harresi horiek bi metroko lodiera izaten zuten, gutxi gorabehera. Harresiak, gainera, almenak eta gezi-lehioak zituen harresiaren bira osoan egokiro banatuak.

Herriak bost sarrera zituen, haietako bakoitzak babeserako dorre bat zuelarik. Hiru ate itsasorako irteerak ziren: Ugarritzakoa, Errebalekoa eta Itsasoko atea, Kapitanenea, Santxoenea eta Santa Maria kaleen amaieran zegoena. Beste bi, beraz, lehorreko atea ziren: Nafarroakoa eta Frantziakoa.

**1. atea, Nafarroako atea:** Goiko kaletik Nafarroarako bidea zabaltzen zuen atea da. Ate hori babesten zuten dorretxeak Morrontxo eta Torrekoa dira.

**2. atea, Frantziako atea:** Torrekuatik hasi eta Ugarritzako zumardiraino iristen zen harresi zatiaren amaieran Zubiaurre dorretxea genuen Beheko kalean, iparraldetik zetorren bideak bertan sartzeko zuen atearen babesgune gisa.



Harresi zati horren aurrealdean gotorleku txiki bat zegoen, harresiak lehorretik zituen bi sarrerak, Goiko kalekoa eta Beheko kalekoa, babesten zituena, Onbide zinema zegoen parean. Gotorleku txiki hori, harresietatik kanpora zegoen, baina babestutako pasabide baten bidez, harresiei lotuta zegoen.

Gaur egun, harresi zati horren zati bat ikus liteke Txintzarri Elkartearen egoitzan. Aukera izanez gero, harresia bertatik bertara eta zer izan zen irudikatzeko aukera ona da.

**3. atea, Ugarritzako atea:** Herriko enparantzatik ibaiaren bokalera irteteko erabiltzen zen, hain zuzen Ugarritzara eta bertan zegoen ontziolara joateko. Ate horretako arkuak 1880. urtean eraitsi zuten.

**4. atea, Itsasorako atea:** Kapitainenea, Santa Maria eta Santxoenea kaleak, zuzenean itsasora ematen zuen ate batean elkartzen ziren. Ate horren gainaldean zen arkuak 1887. urtean bota zuten lurrera.

**5. atea: Errebaleko atea:** herritik portura eta lonjara bertaratzeko atea zen, baita Donostia alderako irteera ere, Pontika eta Galtzarabordatik barrena. 1657. urtean eraitsi zituzten Errebaleko arkuak eta atea, askoz altuagoa zen arkuak eraikitzeke. Ate horrek, goiko aldean armarria zuen.

Informazio asko dago garai hartan herriak zuen itxurari buruz. Guk horren guztiaren laburpena izan daitekeen testu bat eskainiko dizuegu.

Helburua litzateke ikasleekin testu hori lantzea eta ondoren, aurkezten diren galderak erantzutea.

*“ Herria lapurretetatik eta erasoetatik babesteko harresiz inguratu zuten. Harresiak bost ate zituen. Horietatik bi lurreko ateak ziren: Nafarroakoa eta Frantziakoa.*

*Beste hirurak, Ugarritzakoa, Errebalekoa Itsasoko ateak ziren. Ate bakoitzaren ondoan, haiek zaindu eta babesteko, dorretxeak zeuden. Bastioi bat ere bazuen, lurreko bi ateak hobeto zaintzeko.*

*Hasiera batean herriak bost kale zituen: Goiko kalea, Beheko kalea, Erdiko kalea, Eliza kalea eta Orereta kalea.*

*Beranduago, herria handitu zenez, harresiak zabaldu eta beste hiru kale eraiki zituzten: Santxoenea, Andre Mari eta Kapitainenea.*

*Herria dotorea zen. Hainbat dorretxe zituen eta kaleetako lurra harrizko harlauzazkoa zen, Ugarritzako zubia bezala.*

*Horregatik, hainbat kaletan gurdiak debekatuta zuten ibiltzea, gurpilekin zorua honda ez zezaten.*

*Mikelazuloko pasabidetik gora ibiltzen ziren Nafarroa aldera zihoazen gurdiak. Nahikoa komeria ibiltzen zituzten handik pasatzeko, pasabide estua baitzen!*

*Harresietatik kanpo, Madalenako ermita zegoen. Garai hartan, legenardunen ospitalea zen”.*

*JARDUERA1: Irakurri arretaz testua eta galderak erantzun:*

*Koadernoko 8. orrialdea.*

## **10. ITSASOARI BEGIRA: ONTZIOLAK**

Esan dugu lehen, herrian nabigazioarekin zerikusia zuen jendea bizi zela.

Erdi Aroan, Matxingo lurmuturretik, antzinako Kaputxinoen komentutik, gaurko Biteri kalean barna Madalenako errebaleraino iristen zen itsas-adarra nabigagarria zen eta egokia portuko zamaketarako. Gaurko Foru plazan merkataritzako portuak zeuden. Portuak merkantziak pisatu eta gordetzen ziren saltokia zuen: lonja.

Sakonera txikiko ontziak, berriz, Oiartzungo Ugaldetxo auzoraino igotzen omen ziren.

Beraz, itsasontziak errebaleko portuan (Foru plazan) lehorreratzten ziren. Errebaleko atetik, herri barrutik portura eta lonjara iristen ziren.

Herriko burdinolak hornitzeko mea behar zen. Mea hori leku guztietatik portura iristen ziren itsasontziek ekartzen zuten.

Oiartzun ibaiaren bazterrean eta badian bost ontziola finkatu ziren: Ugarritzakoa, Lonjakoa, Erriberakoa, Madalenakoa, eta Basanoagako erret ontziola.



Ontzigitzak indar handia hartu zuen herrian. Bertan, 800 tona arteko itsasontziak egin zituzten, eta 200 itsasgizon lanean aritzera heldu ziren, nabigazioko arlo guztietan adituak.

Ontzigitzak zuen indarraren erakusgai, 1593an 29 galeoi eraiki ziren aldi berean.

Gure herria izan zen, Euskal Herriko ontzigitza gune garrantzitsuenetakoa 1590-1730 urte bitartean.

Hainbat familia aritzen ziren ontzigitzan, horietatik, aritu zen nagusiena, Amasa familia izan zen.

Dokumentuetan aurkitu den eraikitako lehen itsasontzia, “El Salvador” izenekoa da, eta XVI. mendean egin zen Sebastian Zubietakoa herriko semeak aginduta. Ontzi hori, Espainiako Koroarekin aritu zen gerran Herbehereen aurka 1574an.

Espainiako erregek Donostiari emaniko pribilegioak ontzigitza ahuldu zuen. Gainera, Oiartzun ibaia lokaztu zen, eta jendeak zaborrak botatzen zituen ibaira. Bestalde, hainbat itsasontzi hondoratu ziren. Horrek guztiak eragin zuen portuko urek geroz eta sakonera gutxiago izatea. Portua lehortzen joan zen, eta itsasoa urrutiratzen.

Ipinitako marrazkia aurreko marrazkiaren zatia da. Bertan, Ugarritzako ontzitolan eraikitzen ari diren itsasontzia ikus liteke. Marrazkia behatuta, ontziak nola, zerekin eta zein langilek eraikitzen zituzten ikus liteke. Nahi izanez gero, Donibaneko Albaola elkarteak duen ontzitolan lanbidea nolakoa zen azaldu eta nola lan egiten zuten erakutsiko digute, bertatik bertara. Albaola elkarteak badu itsasontzi bat garaiko erara egina BASANOAGA izenekoa, Erdi Aroan Basanoagan izan zen ontziola garrantzitsuaren omenez.

Ontzioletan itsasontzi berriak egiten zituzten eta zaharrak berritu. Arrantzarako itsasontziak ere egiten zituzten: batelak eta txalupak baxurako arrantzarako. Zetazeo eta balea bila ere joaten ziren, batez ere haien koipea atera eta esportatzeko. Donibanen, Kalaburtzan, puntetako bidean, koipea ateratzeko txabola baten errepikapena dago, han baduzue txartel bat lan hori nola egiten zuten azaltzen duena.

*JARDUERA 1: Ugarritzako ontziola duzu. Marrazkia behatuta esango al zenuke nola eraikitzen zituzten itsasontziak?*

*JARDUERA 2: Ordenatu hitz hauek eta ontziolei buruz gehiago jakingo duzu.*

*Koadernoko 9. orrialdea.*

## **11. NABIGATZAILEAK**

Itsasoari hain lotuta zegoen herriak itsasgizon ugari izan zituen. Idatziek diotenez, une batean herriak hainbat itsas-lanetan ziharduten 200 itsasgizon zituen. Horregatik, urruneko garai haietan, herritarrek itsasgizon trebeak ziren. Herritarren biografiek nabigatzaile handien bizitzak jasotzen dituzte: itsas jeneralak, almiranteak, kapitainak eta baita kosmografo bat ere. Une batean, 50 kapitain izatera iritsi zen, urruneko itsasoetan nabigatzen.

Zenbait nabigatzailearen izenak hautatu ditugu eskaintzen den gurutzegrama osatzeko. Baita haietako zenbaiten irudiak ere.

*JARDUERA 1: Saia zaitetz gurutzegrama osatzen. Irudietako eta esaldietako itsasgizonen abizenekin.*

Itsasoa urrutiratu bazitzaigun ere, oraindik orain iragan haren arrastoak aurkitzen dira herriko hormetan. Hala, ugariak dira kale zaharretako armarrietan dauden irudiak.

Unitate honetan proposatzen den irteera balia dezakegu armarri horietan arakatzeko, gustukoena dutena aukeratzeko eta marrazteko.

*JARDUERA 2: Marraz ezazu gehien gustatu zaizun armaria.*

Gustuko armarriaren lokalizazioari erreparatzeko eskatuko diogu. Hau da, armarri bakoitza etxe bati dagokio, kale batean dagoena eta zenbaki bat duena.

*JARDUERA 3: Armarri hau helbide honetan dago:*

Gustuko armarria arretaz behatu, eta armarria osatzen duten elementuak zerrendatzeko eskatuko diegu segidan.

*JARDUERA 4: Armarri honetan aurkitu ditut:*

*Koadernoko 10 orrialdea.*

## **12. KONTAKIZUNAK**

### ITSASOKO MIRARIA

Duela urte asko, Maria Lezo Ingalaterrako erreginaren gela-laguna zen. Maria Morrontxo dorretxean jaio zen, eta Guillen Lezo itsas kapitainaren alaba zen.

Maria 20 urtez aritu zen erregina zerbitzatzen. Hainbeste urtez herritik urrun bizitu bazen ere, ez zuen inoiz ahaztu.

Behin batean, herriari hainbat opari egin nahi izan zizkion. Horretarako, itsas kapitaina zen Morrontxo dorretzeko semeari eskatu zion opari aberats haiek Ingalaterratik herrira ekar zitzan.

Morrontxoko semeak, gariz beteta zekarren ontzian sartu zituen Mariak eman zizkion opariak eta itsasoratu zen.

Itsas zabalean izugarrizko enbatak harrapatu zuen itsasontzia. Hondoratzeko zorian zirela, beldurrez akabaturik, marinelek une batez errezatu eta Mariak emandako gauzen artean zegoen gurutzea itsasora bota zuten.

Diotenez, gurutzea uretara erori bezain laster itsasoa baretu egin zen. Orduan, itsasgizonek bidaia jarraitu ahal izan zuten lasaitasunez. Antza, opari haiek urte askotan parrokia apaindu zuten, geroago Bizarain mendian egin zuten Madalenako basiliza egin zuten arte.

Hala jaso omen zien herriko historialari famatuak bere aurrekoei eta halaxe kontatzen dizuegu guk ere zuei.

### MIKELAZULO

Aspaldiko garai haietan, hiribildutik Nafarroa aldera joateko Goiko kalean gora egin behar zen, Nafarroako atetik barrena. Hara heltzeko, Elizako dorrearen azpian zegoen tuneletik igaro beharra zegoen.

Oso ospetsua egin zen pasabide hura. Izan ere, zuen garaiera eskasak arazo bat baino gehiago sortu zizkien garaiko garraiolariari.

Kontatzen dutenez, arkupe horretan, Mikela izeneko emakumea egoten zen. Mikela oso emakume atsegina eta argia omen zen, eta horregatik, herritarrak maiz hurbiltzen ziren pasabide estu hartaraino Mikelarekin kontu-kontari aritzeko.

Batzuk esaten zuten sorgina ere bazela, sendabelarrak oso ongi ezagutu eta haiek erabiltzen oso trebea baitzen.

Sendagileek sendatu ezin izan zituzten gaixo asko sendatu omen zituen Mikelak, eta horregatik asko maite zuten herrian.

Haren omenez, eta hura gogoratzeko, esaten hasi omen zitzaizkion Mikelazulo leku hari. Eta horrelaxe ezagutzen dugu guk ere gure garaietan. Eta hala bazen ala ez bazen, sar dadila kalabazan eta irten dadila herriko plazan!

## **13. MARI ZOZAIAKOA**

Erdi Aroa sorginen kontuekin lotutako garaia da. Gure herrian ere, oso ezagunak ez izan arren, izan ziren sorginak izatea leporatu zitzaaien pertsonak. Horietako batzuk Logroñoeko prozesuan epaituak eta erahilak izan ziren.

Horietako bat izan zen Mari Zozaiakoa.

Pierre de Lancre-k Lapurdin hasi zuen lanari segida eman zioten hemen. Funtsik eta frogarik gabe hainbat lagun sorgin izateaz akusatuak izan ziren. Haien kontrako argudioetan, gertaera fantastikoak, gertaezinak deskribatzen ziren.

Mari Zozaiakoari sorgin kontuetan hurren eta beste herritarren irakasle izatea leporatu zioten, besteen artean.

Mari, 1530. urtean jaio zen. Inkisizioak 1609. urtean Logroñon egin zuen epaiketa erraldoian epaitu zuten. Heriotzera zigortu bazuten ere ez zuten sutan erre, kartzelan hil zen aurretik bertan jasandako tratua ondoz. Lau urte beranduago, Ofizio Santuaren Kontseilu Nagusiak epai haiek berraztertzea eskatu zuen, bazekiten sorginkeriaz akusatutako kasu gehienak berritsukeria besterik ez zirela, denak ez esatekotan. Beranduegi, hala ere, Marirentzat eta beste jende askorentzat.

Zorte hobea izan zuten sorgina izatea leporatu zieten herriko beste hiru emakumek: Katalina Idiazabalek, haren alaba Madalena Arenederrak eta Madalena Larraigiñezek.

Bartolome Yartua izan zen kaltetutako beste herritar bat. Konjuradore izatea leporatu zioten. Isuna eta kartzela zigorra ezarri zizkioten.

Gehienak sorgin izateaz salatuak izan ziren, bekaizkeria eta ezinikusien ondorio izan zirela dirudi.

Koadernoan Mari Zozaiari buruzko testu bat eskaintzen da. Ondoren, Mari pertsonaia nagusia duela ipuin bat sortzea proposatzen da. Jarduera, unitateko irteera egin ondoren egin daiteke. Horrela, ipuina herrian kokatzeko eskatuko diegu: herriko dorretxeetan, portuan, ontzioletan gerta daitezke tramak. Ea zer asmatzen duten!

*JARDUERA: asmatuko al zenuke amaiera polita duen ipuina Mari Zozaiakoarentzat?*

*Koadernoko 13. orrialdea.*

## **14. MARIA LEZOKOA**

Gillen Lezokoa eta Gracia Yerobi eta Gamonen alaba. Miguel Lasaokoarekin ezkondu zen.

Morrontxo dorretzeko oinordekoa zen. Gamon herriko historiagile ospetsuaren arabera, Maria Lezokoa da dorretxearen jabe izan zela ziurta daitekeen lehenengo pertsona.

Enrique VIII.aren emaztearen gela-lagun gisa aritu zen. Parrokiako erretaula gotikoa hark emana dela uste da. Ingalaterran hil zen 1554. urtean.



Maria Lezokoarekin zerikusia duen kontakizuna aipatzea interesgarria izan liteke. Gida honetako 11. jardueran duzue, ITSASOKO MIRARIA izenburua duela.

## **15. MARTIN PEREZ URANZUKOA, MATXINO ERREENTERIKOA**

Itsas Handiko jenerala izan zen eta *Matxino Errenteriakoa* ezizenez ezaguna izan zen. Kapitain Enea oinetxea eraiki zuen.

1521. eta 1523. urteetan frantsesen kontra borrokan aritu zen Hondarribia defendatzeko.

1526. urtean, berriz, Bizargorri pirataren aurka aritu zen. Carlos V.a Gaztelako erregeak jeneral izendatu zuen eta armarrria eman zion.

## **16. PEDRO ZUBIAURREKOA**

Itsas Handiko jenerala izan zen. Zubiaurre dorretxearen jabea izan zen eta harek eman zion armarrria.

1568. urtetik 1605. urtera Felipe II.aren armadan aritu zen. Bordeleko Blaya gazteluaren konkistan parte hartu zuen.

1605eko abuztuaren 3an hil zen, Ingalaterran. Bere gorpua parrokian hilobiratu zuten, hala ere.

Bere etxearen maketa Donostiako Ozeonografia museoan dago.

## **17. MARTIN ZAMALBIDEKOA**

Santa Klara kalean jaio zen.

Haren etxea, armarriduna, Zamalbide auzoan dago.

Hegoaldeko Itsas jenerala izan zen eta Indietako armadaren gobernadorea.

Perun hil zen 1657ko urtarrilaren 25ean. Parrokiko aldareko apaingarriak utzi zizkion herriari eta, era berean, hainbat ondasun eman zizkien herriko behartsuei.

## **18. MARTIN ZUBIETAKOA**

Itsasgizon eta kosmografo izan zen. Magallaneseko pasabidearen aurkikuntzan parte hartu zuen. Lubeltzako oinetxearen jabea zen eta Maria Uranzurekin ezkondu zen.

1570. urtean, herriko alkatea izan zen eta herriaren ordezkaria Probintziako Batzarretan.

1580. urtean, “La Trinidad” Magallaneseko pasabidera joan zen itsasontzia egin zuen Pontikako ontzian.

Ontzia gariz zamatu eta Andaluziara eraman zuen. Han zegoela Magallaneserako espedizioan parte hartzeko eskaintza egin zioten. Herriko asko eraman zituen berarekin.

1584ko azaroaren 22an itzuli ziren handik. Hiru egunetara hil zen, San Lucaren.

## **19. PEDRO IRIZARREKOA, MOSEN PIERRE**

Apaiza izan zen eta 1522an frantsesen aurkako gerran parte hartu zuen, Oiartzunen, Arkaleko gainean.

Etsaia engainatzeko asmoz, mosen Pierrek 400 mutiko eta emakume elkartu zituen gauetz. Zuzi bana piztuta zeramatela, Irun aldeko erret bidetik pasa ziren, Oiartzungo Gurutze auzotik behera. Puntu batera heldutakoan zuzia itzali eta atzera lehengo bidea egin zuten ilunpean. Abiapuntura heldu, zuzia piztu eta bidea berregin zuten, behin eta berriro gauza bera eginez gau osoan.

Hori ikusirik, frantsez-nafarrek pentsatu zuten erasoak Irun aldetik etorriko zitzaizela, eta tropa ugari zirela erasotzeko prest zituztenak.

Bitartean, Azkue eta Ambuloide kapitainek, herriko tropekin frantsesak ezustean harrapatu eta eraso zieten. Hauxe da Irunen San Martzialetan urtero ospatzen den jai sonatuaren jatorria.

## 20. MIGUEL ALDUNTZINEKOA

Hizlaria eta polemista izan zen.

Portua zela-eta herriak Donostiarekin izan zituen liskarretan herriko defendatzailea izan zen.

Portuaren auziaren gainean 1620an sinatu zen aldean arteko adostasun dokumentua Alduntzinek sinatu zuen herriaren izenean.

## 21. MARTIN ETXEBERRIA

1660. urtean jaio zen eta 1700.ean hil zen. Madrileko Alcalako Unibertsitateko Arte katedraduna izan zen eta Calahorrako kalonjea, gainera.

Zuen izaera isilagatik, eta izan zituen ezagutza ugari eta aberatsengatik, “letraz kargatutako astoa” izenez ezagun egin zen.

## 22. ERDI AROAN BARRENA. IRTEERA

Unitate honetako irteera Madalena ermitan hasiko dugu.

Izan kontuan, unitate honek biltzen duen garaian, Erdi Aroan, Madalenako ermita harresiz kanpo zegoela; hau da, herritik kanpo.

### *1- MADALENA ERMITA*

Hasiera batean herriko, Gipuzkoa eta Nafarroako legenardunen ospitalea ere izan zen. Horregatik, eta gaixotasunak suposatzen zuen arriskua zela medio, hiribilduko harresitik kanpo eraiki zuten.

Madalena legenardunen zaindaria denez, hortik etorriko zaio izena ermitari. Ez da zehazki ezagutzen noiz eraiki zuten. Zenbait autoreren arabera, ospitalea 1320. urtean eraiki zuten, eta ermita, berriz, 1500 urte inguruan.

1547. urtean, Udala ermita berreraikitzekotan zen. Beraz, hortik ondoriozta dezakegu askoz ere lehenagotik eraikia zela.



Legenardun leku gisa, XVII. mende erdiraino erabili zen, antza. Legenardunen lekuak, berez, legenardunak herrietatik aparte bizi ziren herrixkak ziren, oinarrizko osasun eta karitatezko zerbitzuak zituztelarik.

Ondoren, hainbat gerratako tropek hartu zuten. Eta 1866an kanpai lantegi bilakatu zen. Ordurako, oso hondaturik zegoen.

Udalak biltzen zituen laguntza eta limosnei esker iraun zuen. Baita, Bengoerrotak zituen irabazien laurdenari esker.

Herrian ermita esaten bazaio ere, Madalena Basilika da. Bertan, barruan, herriko zaindaria den Madalena deunaren irudia gordetzen da. Urtean behin soilik irteten da ermitatik, Madalena egunean parrokiara joateko.

Orduan, dantzariak, Udal banda eta Udal korporazioa bila etortzen zaizkio eta lorez apainduta eta musikaz lagunduta egiten du parrokiarainoko ibilbidea jaien egun handian.

Madalen kaletik aurrera jarraituko dugu. Kale honetako etxeak aspaldikoak diren arren, han ez dugu Erdi Aroko arrastorik topatuko, Madalena kalea geroago egindako zabalpena baita.

Foru plazaren ondoan igaroko gara. Erdi Aroan orain gure ezkerretara geratzen den guztia portua zen. Foru plaza itsasontziz beterik zegoen, hortaz.

Harresiaren atera heldu gara. Gure ezkerretara, Foru plazan barrena lerrokatuta dagoen etxe ilara horrek Erdi Aroan hiribilduaren itsasoko harresia osatu zuen. Errebaleko atea egon zen lekuan, gaur egun, bi etxeen arteko pasabidea besterik ez dago. Begira diezaiozun mapari. Hor lehen planoan agertzen den ate hori Errebaleko atea da, juxtu gu orain gauden kokagunea.

Atea igaro eta aldapan gora abiatuko gara. Berehala, eskubitara Mikelazuloko pasabidea ikusiko dugu. Gu ere hortik zehar abiatuko gara.

## 2- MIKELAZULO

Mikelazulo elizaren dorre azpian dagoen pasabidea edo tunela da. Hasieran eliza askoz txikiagoa zen, baina behin eta berriro izan zituen handitzeak, azkenean, kalea bitan moztera behartu zuten. Orduetik, Goiko kalea eta Santxoenea kalea elkarri begira geratu ziren, eraiki zuten dorre berriaren azpiko kantoiko tuneletik.



Erdi Aroan, hiribilduaren eta Nafarroaren arteko merkatal harremanak oso garrantzitsuak ziren. Eta, horren ondorioz, horixe zen Nafarroako atera eta Nafarroako bidera joateko bidea. Horren azpitik pasatzen ziren Nafarroa aldera zihoazen jendeak, gurdiak eta merkantziak. Mikelazuloren garaierak arazo bat baino gehiago sortu zizkien garaiko garraiolariei, eta garaiko idazle batek baino gehiagok idatzi zuen horri buruz trufatzeko.

Nahi baduzu, gida honetako 11. puntuan jasotzen den kontakizuna aipatu dezakezu Mikelazulon zaudetela probestuz.

Mikelazulon barrena igaro eta jarrai dezagun aldapan gora. Gaur egun kale batekin topo egingo dugu, baina Erdi Aroan Nafarroako atetik behera jaisten zen harresiak ez zuen etenik. Harresia zabaldu zutela baliatuta, une batez, Goiko kaleko norabidea utzi, eta Astotokian sartzen bagara, argi ikusiko dugu herriko harresiaren aztarna. Harresiaren gainean eraikita daude Goiko kaleko etxeak eta argi eta garbi ikusten da Morrontxoko dorretxerako zatia. Haraino joanez gero, Morrontxo dorretxeko fatxada ikusiko dugu.

Leku horri astotokia esaten zaio garai batean, orain ikusten dugun eraikuntza berde horren lekuan, Udal azoka zegoenean, bertara etortzen ziren baserritarrak han uzten baitzituzten astoak lotuta. Oraindik ere badaude astoak lotzeko burdinezko zirgiloak, ea nork topatzen dituen!

Harresi zaharra ikusi ondoren, Goiko kalean behetik gora abiatzeko prest gaude. Ezker aldean elizako atea eta horma ditugula, eskubian etxeetako atariak azaltzen joango zaizkigu. Horietako batzuei erreparatzen badiogu, armarrak dituztela ikusiko dugu. Ezkerretara, Elizako kalea eta Orereta kalea aurkituko ditugu. Hor ere badira Erdi Aroko etxe dotoreak, tartean Amulleta eta Arranbide etxea. Kanean gora, garai batean kalearen amaieran, bi dorretxe ditugu ezker eskuin: Morrontxoko dorretxea eta Torrekuia. Bien artean, Nafarroako atea zegoen.

Mapari begiratzen badiogu berriro, hortxe topatuko ditugu elementu horiek, harresiaren goiko muturrean. Marrazkian agertzen den gisan, garai hartan, atearen gainaldetik dorretxe batetik bestera igaro zitekeen. Nafarroako atea eraitsi bazuten ere, gaur egun oraindik Torrekuako horman ikus litezke eskailera mailen arrastoak eta horien buruan zen atearen aztarna.

### 3- MORRONTXO

Goiko kalean eskubira dugun dorretxea da.

Hiribildua defendatzeko eraiki zuten. Haren eraikuntza estiloak Europa iparraldeko eraikuntzen eragin garbia du.

Mendebaldeko fatxadak izan ezik, gainerakoek teilatutik gertu modiloiak dituzte. Haien eginkizuna defentsarako erabiltzen zituzten egurrezko egiturei eustea zen. Egurrezko talaiak gisako haietan soldaduak kokatzen ziren.

Ekialdeko eta hegoaldeko hormak lodiagoak egin zituzten, defentsarako eraginkorrak izan zitezkeen. Fatxada nagusia, Goiko kalera ematen duena, harlanduzko harriz egindakoa da eta gainerakoak kareharriz eginikoak dira. Hegoaldeko fatxadan, harresien kanpoaldera, Topoko geltokitik ikus daitekeen aldean, alegia, soilairu nagusiko ezkerrean eraikuntza txiki bat ikus genezake, ziurrenik Erdi Aroko komuna izango zena.

Mendebaldeko fatxadan dorre almenatu dotorea ikusiko dugu, ipar-ekialdekoan eskubiko erdialdean bost harri azaleratzen dira. Antza, dorrearen inguru osoa almenaduna izan zen, baina egun arrasto horiek besterik ez dira geratzen.

Sarrerako atea arku zorrotzekoa da.

Ez da ezagutzen zein urtetan eraiki zen dorretxea. Hala ere, jasota dago nortzuk izan ziren haren jabeak. Haietako bat, Juan de Olazabal kapitaina izan zen. Horregatik, Sanjuangua izenez ere ezagutzen da dorretxea.

Juan de Olazabal hiribilduko alkatea izan zen XVI. mendearen amaieran. Gainera, hainbat errotaren jabea zen eta itsas enpresaria: 17 galeoi handi eraiki ziren haren aginduz.

Hala ere, urte asko dira dorretxea etxebizitzetan banatu zela, eta etxebizitza arruntez osatua dago.

#### 4- TORREKUA

Morrontxo dorretxearen aurrez aurre dago, eta haren gisan hiribildua babesteko eraiki zuten. Bi dorretxeen artean, beraz, Nafarroako atea zaintzen zuten.

Dorretxea barrutik bitan banatua dago. Goiko kalean aldamenean dagoen zatia, Morrontxon antzera, etxebizitza arruntetan banatu zen, eta etxejabeena da. Iparraldeko zatiari dagokionez, sute baten ondoren utzita egon zen urte luzeetan Udalak erosi zuen arte 1995. urtean, ia erortzear zegoela. Zaharberritu egin zuen eta zenbait museo kokatu ditu han, tartean Euskal Jantzien museoa.

Torrekuak, hegoaldeko fatxadari, Goiko kale aldera dagoenean, sarrerako bi ate zituen. Bata beheko solairuan eta bestea lehenengoan. Azken horretara, kanpoan zuen eskailera batetik joaten zen. Egun, haien arrastoak garbi ikus ditzakegu.

Ez da ezagutzen noiz eraiki zuten, baina 1494. urterako jada konpondu zuten. Artxiboan jasota dago ere zeintzuk izan ziren dorretxe horren jabeak.

Torrea eta Urdinso izenaz ere ezagutu da dorretxea. Independentziako gerran etxea hutsik geratu omen zen eta hori zela-eta, 1813. urtean, ingeles armada aliatuaren gudarosteak bertan egon ziren.

Dorretxeak aurpegi misteriotsu bat du zizelkaturik. Bere kokalekutik mendeak daramatza Goiko kalean zehar gora eta behera dabilen jendea zelatatzen. Orain ere guri begira dago. Ea nork aurkitzen duen!

Bi dorretxeak ikusi ondoren, jarrai dezagun ibilbidea. Beherantz joanda Jaurtarkol plaza aurkituko dugu. Handik gora begiratu, Goiko kaleko etxeek eskaintzen diguten ikusmira aparta izango dugu. Erdi Aroko etxe haiek gutxi gorabehera nolakoak ziren irudikatzeko aukera polita eskainiko digu ikuspegi horrek.

Plazatik behera Orereta kalea dugu, bertan etxe eta atari zaharrak ikusteko aukera izango dugu.

Torrekuak ondoren dagoen etxea Arranbide etxea da. Haren atzealdean egongo zen mapan ikusten dugun bastioia.

Aldapak Erdiko kalearekin bat egiten duen lekuan herriak zuen hurrengo atara helduko gara, Frantziako atea.



## 5- ZUBIAURRE JAUREGIA

Hiribilduko jauregi hori herriko oinetxe zaharrenetako bat da. Antzinako erregimenean zehar herrian izandako familia nagusienei loturiko hiri jauregia da. Familia horiek desagertzea eta hiriak XIX. mendean zehar izan zuen bilakaera dira, eraikina etxebizitzarako bihurtzea, alegia, Zubiaurre jauregiak gaur egun duen narriaduraren eta egoera txarraren errudunak.

Hainbat jabe izan ditu historian zehar; horregatik, era berean, hainbat izen izan ditu.

Zubiaurre jauregia izenaz gain, Jauregi Zaharra, Antia-enea, Amasa-enea, eta Elizalde-enea izenez ezagutu da.

Haren jabeetako bat Pedro Zubiaurre itsasgizona izan zen.

Hegoaldeko fatxadan balkoiak ditu. Baita armarri ederra ere. Fatxada hori litzake banderak eta tapizak eskegi eta jauregiko jauntxoak kalera agertzeko lekua.

Beheko balkoiak jauregitik ateratzen den balkoi luzapena du. Hori ez zen atearen horma, Santa Klara alderago baitzegoen. Mapan ikusten badugu, erraz ohartuko gara jauregia eta harresiaren artean plaza edo kale zabalpena dagoela. Hainbat uste eta teoria daude luzapen horren gainean, baina ez zuen defentsa sistemarekin inongo harremanik. Harresia, alboan eraiki zuten etxearen azpialdean ikus liteke, Txintzarri elkartearen zoruan. Beraz, harresia mendebaldeagotik jaisten zen.

Ekialdeko fatxada ikusteko Erdiko kalera joan beharko dugu. Teilatuan kanoi itxurako galgora ikus genezake. Behar bada atentzioa emango digu leihoak altura desberdinetara daudela. Horren arrazoia solairuarteetan zeuden eskaileraburuak argiztatzeko beharra da.

Iparraldeko fatxada zumardi aldera ematen duen fatxada da. Seguruenik jauregia eraiki zutenean atzealdeko fatxada izango zen, ibai ertzera begira zegoelako, baina, hala ere, ardura nabaria izan zuten bere osakeran eta ipini zituzten elementuetan. Gaur egun zumardian ikusten ditugun ate horiek, garai hartan ibaian ziren itsas jarduerekin lotutako industri-lokalak izango ziren.

Iparraldeko fatxada horretatik hasi eta Beheko kaleko etxeen atzealdeek osatuko zuten, beraz, ibai aldera ematen zuen harresia.



Beheko kaletik barrena abiatuko gara. Alde batera utziko dugu Erdiko kalea. Erdiko kalea, Arakin kalea izenez ere ezagutzen zen, bertan harategiak zeudelako, agian.

Beheko kalean hainbat armarridun etxe ikusiko dugu, baita etxe sarrerako ate dotoreak. Amaieran, Udaletxetik behera datorren kalearekin bat egiten du. Beheko kaleko azken etxearen ertzak osatuko zuen hurrengo atea: Ugarritzako atea.

Ugarritzako atea, hiribildutik Ugarritzako ontziolara eta Lezoko bidera joateko erabiltzen zen. Ibaia zeharkatzeko harlanduzko harriz eginiko zubi dotorea zegoen: Ugarritzako zubia. Egun, izen hori du oraindik nahiz eta Panierreko zubiaz ere ezagutzen den. Liburuxkako 7. Eta 12. Orrialdetako mapetan ikus daitezke elementu horiek guztiak.

Harresiak jarraitzen zuen Bengoerrotaraino. Etxe horien guztien aurrean, egun zumardia dagoen lekuan, ubide bat igarotzen zen, Fanderiatik errotaraino ura ekartzen zuena. Garai hartan errotako eraikuntza beste eraikuntzak baino aurrerago ateratzen zen, gaur egun haren orde z dagoen etxeak ere zumardiko beste etxeekiko lerrokadura bera du.

Egun zumardiko lerrokadura hori etenda badago ere, XIX. mende arte ez zuen izan etenik. Garai hartan eraitsi zuten etxea Biteri txikiari irteera eman eta errepide berria Papeleraino irits zedin.

Gure bidean udaletxe aldera egingo dugu guk. Udaletxera heldu aurretik, haren alboan Kapitanenea kalea dugu. Kale horretan aurrera joan beharko dugu hurrengo eraikuntza aurkitzeko.

#### 6- KAPITAIN ETXEA

Gaur egun Kapitain etxea izenez ezagutzen den eraikuntzak herriko historiako lehenengo urteetan du jatorria. Garai hartan Uranzu familiarekin lotuta agertzen da. Antza, famili hori Oiartzun bailaratik etorri zen Orereta auzoa populatzera.

Etxe horretakoak ezagunak ziren itsasorako ontzigile gisa. Matxin Uranzu itsas kapitainaren, edo *Matxin Errenerriakoa*, jaiotetxea izan zen. Kapitaina, Bizargorri piratarekin borrokatu zen urruneko itsasoetan. Hortik datorkio Kapitainaren etxea izena.

Gaur egun bi etxe badira ere, hasiera hartan etxe bakarra zen.



Beranduago, etxea Juan Iturrizarena izan zen. Hark agindu zuen gaur egun fatxada nagusian ikusten ditugun bi armarriak zizelkatzea: Urantzatarrena eta Iturrizatarrena. Azken jabe berri hori dela eta, Iturrizako etxea ere esaten zaio. Torrekuan gertatu bezala, hemen ere etxea erdibitu egin zen etxebizitza arruntak egiteko. Gaur egun Kapitain etxea dena 1984an erosi zuen Udalak, erdi erorita zegoena birgaitu eta kultura-etxe bilakatu zuen.

Arkitektura aldetik aipagarriena fatxada nagusiko teilatu-hegal azpian agertzen den erlaitza da.

Erdi Aroan, eta beranduago ere, XIX. mende arte, Kapitainenea kalea Bengoerrotaraino heltzen zen jarraian, baina Biteri txiki kalea eraiki zutenean, hainbat etxe eraitsi eta kalea erdibitua geratu zen, Santa Maria eta Santxoenea kaleekin gertatu zen antzera.

Nahi izanez gero, Kapitainenea kalean aurrera egin genezake, Biteri txiki arte. Kale horretatik barrena joan gintezke Santa Maria kaleraino, edo Santxoenea kaleraino. Zuk erabaki, helburua Herriko plazara heltzea baita.

Bi kaleetako etxeetan armarri ederrak topatuko ditugu. Santxoenea kalea eta Madalen kaleko ertzean Kanttalen etxea topatuko dugu. Haren leihoei begira Erdi Aroan trebatzen ari zaizkizun ikasleak laster ohartuko dira Erdi Aroko eraikuntza ederra dela.

Hautatu duzun bidea hautatuta, Herriko enparantzara eramango zaitu. Plazan Erdi Aroko hainbat eraikuntza topatuko dituzu. Aurrez aurre, elizarekin Elizako kalea osatuz, Txikitoren kantoia ikusiko duzu. Egun hutsik dagoen etxe horretan XX. mendearen hasieran Txikitoren-fonda izeneko taberna zegoen eta horrek emango zion izena. Hala ere, etxea behatuz erraz antzeman litekeen bezala, etxea Erdi Arokoa da.

## 7- UDALETXEA

Gaur ezagutzen dugun eraikuntzak aldaketa eta zabalkunde asko izan ditu urteen joan-etorrian. Arkupeak zituen eraikuntza izan zen jatorrizko eraikuntza, pisu bat gutxiagorekin.

Herritarrak ordu arte parrokiako koruan eta etxe pribatuetan egiten zituzten bilerak egin ahal izateko eraiki zuten 1603. urtean.

Eraiki eta berehala frantsez gudaroste batek su eman zion herriari. Herritarrek 30 urte behar izan zituzten eraikuntza leheneratzeko. Erabilera hauexek zituen eraikuntza berri hark: behean kartzela, lehen solairuan Udaletxea eta

bulegoak eta azken solairuan mutilentzako eskola, neskek ez baitziren garai hartan eskolara joaten.

1905. urtean eskola kendu eta alkatetza eta hainbat bulego ipini zituzten. Urtebete beranduago hirugarren solairua eraiki zuten, atezainaren etxebizitza izateko.

1925. urtean, Kapitaneneako alboko bi etxe erosi zituen Udalak udaletxea handitzeko.

Beranduago, Herriko plazako alboko etxea erosi eta gehiago zabaldu zuten udaletxea. Eta azkenik, ondoko etxea ere eraberritu zuten, udaletxea Santa Maria kaleraino helduz.

Bere fatxada nagusian udaletxeak lau arku ditu. Lehenengo solairuko balkoien erdian herriko armarria ikus dezakezue. Urte askotan uste izan da armarri hori zela herriko zaharrena.

Kapitanenea kaleak ere baditu arkuak.

Jatorrizko udaletxearen horman eguzki erlojua dago, ea topatzen duzuen!  
Hori izango zen, seguruenik, herrian izan zen lehen erlojua, eta bakarra urte askotan.

Herriko plazara itzulita, bertan dagoen beste eraikin garrantzitsu bat, zalantzarik gabe, parrokiako da.

#### 8- ANDRA MARI PARROKIA

Parrokiak ere ez du beti egun ezagutzen dugun itxura eta neurria izan. Eliza oso antzinakoa da, bertan gure herriaren eta Oiartzungoaren arteko ebazpenak agindu baitziren 1384. urtean.

Frantziako gudarosteek 1512. urtean lapurretak egin eta eliza txikitu ondoren, 1523an parrokia berriz eraikitzea erabaki zuten. Lanak 1573. urtera arte luzatu ziren. Joera artistikoak “euskal gotikoa” deitua izan den korronte horri dagozkio.

Mende Erdiko lana izan zen, behin baino gehiagotan eten zena, seguruenik, eraikuntzak sortzen zituen gastu handiei aurre egin ezin zielako. Kinka larri haietan eta diru sarrerak nolabait areagotzeko, erabaki bereziak hartu zituzten, esate baterako: hiribilduko itsasontziek lortzen zituzten etekinen erdia elizaren lanetarako gordetzea.



Parrokiaren eraikuntza, gainera, herritarrei, baseritarrei eta arrantzari ezarritako zenbait zergeri esker ordaindu zen.

Herriko plazatik ikusten duzun ataria 1625. urtekoa da, eta egungo dorrea 1897. urtekoa.

Frantziako gudalosteek 1638. urtean lapurketak eta txikizioak egin zituzten herrian, parrokiako organu zaharra lapurtu egin zuten. Berria, 1893an inauguratu zuten.

Beirateak, Municheko ZETTLER etxeari eskatu zizkioten. Mundu Gerra lehertu zenean, jadanik Munichetik Amsterdam barrena zetozen beirateak ez ziren Pasaiaiko portura iritsi. Baoak zur zatiekin itxi behar izan zituzten eta hala egon ziren lau urte luzeetan. Gatazka bukatu zenean, erretoreak Amsterdameko portuan aurkitu zituen azkenean: kaxak ukitu gabe eta beira guztiak osorik zeuden.

Parrokiari egindako azken eraberritzea 2007an hasi zen eta eliza bi urtez itxita egon ondoren, gaur duen itxura hartu zuen.

Ama birjinaren koroatzeko erretaula da parrokiako altxor artistiko preziatuena, beharbada. Kondairak dioenez, Aragoiko Katalina, Gaztelako Errege katolikoaren alaba eta Ingalaterrako Enrique VIII.aren lehen emaztearena izan zen. Erreginak Morrontxo dorretxeko Maria Lezo andreari oparitu zion, Ohorezko Dama gisa eskaini zituen zerbitzuak saritzeko eta hark, aldi berean, elizari eman zion.

Koruaren azpian Jesus Baratzean eta Jesus Gurutzea eramaten eskulturak daude, XVIII. mendeko bigarren erdiko kalbario mirengarri bat, eta Madalena penitentzigile guztiz eder bat, kondairak dioenez, Añarbeko ermitatik ekarria hura eraitsi zutenean.

Aldare nagusiko marmola Bizarain mendian zegoen Artxipiko harrobitik ekarri zuten, zumardian dagoen iturri izandako lorategikoaren gisan.

*Koadernoko 12. eta 13. orr.*

## **23. ERDI AROKO ERAIKUNTZAK**

Erdi Aroko herri hartatik hainbat eraikin zutik diraude. Irteeran zehar haietako batzuk ikusi eta haiei buruz hainbat kontu jakiteko parada izan dugu.

Alde batetik, hainbat eraikinen argazkiak aurkezten dira, eta beste alde batetik, eraikin bakoitzaren izenari buruzko informazio laburra eskaintzen da. Egindako irteeran ikusi dituzue guztiak. Orain jakingo ote dute azalpen bakoitza zein argazkiri dagokion esaten?

*JARDUERA 1: Elkartu gezi bidez argazki bakoitzari dagokion izena eta azalpena.*

Urte luze hauetan guztietan eraikuntzek eraldaketak izan dituzte, beti ez dira izan orain ezagutzen ditugun bezalakoak, alegia. Hori guztia irudikatzeko egokia iruditu zaigu Parrokiaren bi argazki horiek aurkeztea.

Parrokiako garai desberdinetako bi argazki dituzte koadernoan. Denboran zehar izandako aldaketak aurkitzeko eskatuko diegu.

Kontuan izan argazkiak bi angelu desberdinetatik egin direla. Izan ere, lehenengo argazkia egin zen lekuan gaur egun Gaztainoko plazako pinuak baitaude eta ezinezkoa da argazkia bertatik egitea.

*JARDUERA 2: Zein elementu aldatu dizkiote? Biribildu.*

*Koadernoko 14. orrialdea.*

## **24. NOLAKOAK ZIREN ANTZINEAN?**

Erdi Arotik egun arte iraun duten eraikuntzekin jarraituz, eraikuntza bikoteak eskaintzen dira oraingoan. Sepia kolorean eraikuntzak antzinean zuen itxura ikus liteke, eta kolorez gaur egun duena.

Iragana eta oraina elkartu behar dituzte.

*JARDUERA 1: Nolakoak ziren aintzinean?*

Orain arte handik eta hemendik informazio orokorra jasotzen aritu dira. Oraingoan gure ikasleei ikertzaile izateko proposatuko diegu. Nahi duten eraikuntza, edo atentzia gehien eman dien eraikuntza aukeratu eta hari buruzko informazioa bildu eta koadernoan jasotzeko eskatuko diegu. Azkenik, haren argazkiarekin edo marrazkiarekin osatzeko eskatuko diegu.

Nahi izanez gero, eraikuntza bakoitzaren aurkezpena antola dezakegu, bakoitzak aukeratu duen eraikuntzaz bildu duen informazioa taldeari eskainiz.

*JARDUERA 2: Aukeratu gustuko eraikuntza eta bildu ahal duzun informazioa.*

*Koadernoko 15. orrialdea.*

## **25. GUK ERE BADUGU UHARTEA**

Guk ere badugu uhartea, baina gure uhartea ez dago itsasoan. Uhartea Añarbeko urtegiaren dago.

Koadernoko marrazkian Maialen eta Xanti ikusiko ditugu Añarbeko uretan nabigatzen. Izan ere, gure uhartean ere, gainerako uharteetan bezala, bazegoen altxor bat ezkutatuta.

Uhartearen izena jakiteko, lehenik mezu sekretua deskodetu beharko dute. Osatu eta koloreztatuta dauden ikurrak elkarren ondoan ipiniz uhartearen izena izango dute: Ozizpe.

Gure uhartean ezkutaturik zegoen altxorra eskultura da. Arraina duen haurraren eskultura, Zumardiko iturrian dagoena, hain zuzen.

Maialenek eta Xantik ez zuten altxorra, hala ere, haientzat gorde eta herrira ekarri zuten. Haurrekin hitz egin dezakegu ea noizbait ikusi duten, non, zer den eta abar.

Hemendik aurrera haur hori eta arrain jolastia izango dira herria ezagutzen lagunduko gaituztenak.

*JARDUERA 1: Mezu sekretua! Koloreztatuta dauden letrak elkartzuz jakingo duzu gure uhartearen izena.*



*JARDUERA: Ba al dakizu Maialenek eta Xantik non utzi duten altxorra?*

*Koadernoko 16. orrialdea.*

## **26. LEHENGO ETA ORAINGO LANBIDEAK**

Herria harresitu eta hiribildua sortu zutenean, biztanleak, batik bat, bi multzotan zatituak geratu ziren. Lehendik herrian bizi zirenei, hiribildura jaitea erabaki zuten biztanleak gehitu zitzaizkien. Horiek osatu zuten hiribilduko biztanleria.

Besteak, hiribildura ez jaitea erabaki zutenak, landako biztanleak ziren.

Bi biztanle multzoen arteko bizimodua desberdina zen, dudarik gabe. Horrek isla izan zuen bi multzoez zituzten lanbide motetan ere.

1.- Hiribilduan bizi zirenak: eskulanean aritzen ziren batzuk, zapatariak, jostunak, ehuleak, eltzegileak, aitzogileak, txapeltzileak, zirgagileak, zamaketariak, arraunlariak eta abar ziren.

Portuan aritzen ziren besteak, eta horiek itsasoko lanetan eta portura iristen ziren ontzien hornikuntzan, konponketan eta abarretan aritzen ziren. Horiek, merkantzien garraioan, arrantzan —baxurako arrantzan eta urrutiko lurretara bidaiatzen zuten merkantzia ontzietan—, arraina gatzetan jartzen, kontsumoko ondasungintzan, arotz lanetan, ontzigintzan eta portura iristen ziren itsasontzien hornikuntzako lanetan aritzen ziren, batik bat. Gainera, estekatzailak, zamaketariak, arraunlariak, lemazainak, patrioiak, portuko gidariak eta garraiolariak ere baziren.

Hiribilduko jauntxoak, berriz, inportazio-espertazioan, eta eskribau, abokatu eta notario gisa aritzen ziren. Ardura burokratiko-administratiboak eta politikoak hartuak zituzten.

Erdi Aroan ez ziren sekula nekazaritzako jardunbideak desagertu hirigune txikietatik. Beraz, hiribilduko etxeek bazituzten baratz txikiak eta abereak etxekeo premiak asetzeko.

2.- Landan bizi zirenak: nekazariak eta abeltzainak ziren gehienak. Oloa eta sagardoa ziren nekazaritzako produktu nagusienak, eta zerria, ardi, ahuntz, ahari eta behiekin batera abeltzaintzakoak.

Beste batzuk oletan lan egiten zuten. Langile horiek olagizonak, ikazkinak, arotzak eta olak ikatzez eta meaz hornitzen zituzten merkatariak ziren. Olak metalgintzaren hastapenak izan ziren; bailarako jardunbide ekonomikoa bultzatu zutenak, eta bertako biztanleak aberastu zituztenak, hain zuzen. Hortik sortu ziren olajaunak.

Koadernoan bi multzo eskaintzen dira, baina aurkezten diren lanbide guztiak ez daude ongi kokatuta; zenbait lanbide ez dagozkio multzoari. Kontua, orduko lanbideak aurkeztu ondoren, ikasleek gaizki kokatutako lanbideak aurkitzea izango da.

*JARDUERA 1: Zenbait lanbide ez daude ongi kokaturik. Ea aurkitzen dituzun!*

Garai hartako hainbat lanbide gure egunetara arte iritsi dira. Garaiei egokituak, hori bai. Beste zenbait, aldiz, galdu egin dira. Ideia horretatik abiatuta hausnarketa egin dezakegu gaur egungo lanbideei buruz. Zerrenda bat osa dezakegu aipatzen dituztenekin, nahi izanez gero sektoreka sailkatuak. Ondorioak atera ditzakegu ondoren: ea Erdi Aroan gertatzen zen gisan, gaur egun ere bizilekuak eragina duen lanbideetan edo ez.

*JARDUERA2: Zein lanbide daude gaur egun herrian?*

Ondoren, ikasle bakoitza bere errealitate hurbilera gerturatzen saiatuko gara. Horretarako bi galdera aurkeztuko dizkiogu:

*JARDUERA 3: Zure etxekoek zein lanbide dituzte?*

*JARDUERA 4: Eta zuk, zein lan egin nahiko zenuke?*

*Koadernoko 17. orrialdea.*

## 27. OLAK

Bailara osoa, eta herria zehazki, olen garapenerako leku aproposa bilakatu zen. Inguruko baso aberatsek olek behar zuten egur eta ikatz hornikuntza bermatzen zuten. Ibai eta errekek ere ugariak eta emari onekoak ziren. Portua eta portuaren hurbiltasunak, bestalde, meaz beterik leku guztietatik iristen ziren itsasontzien sarbide erosoak errazten zuen. Bestalde, olek ekoiztutako burdina itsaso bidez nora-nahi garraia zezaketen.

Beraz, metalurgia indartzen hasi zen herrian, eta olen sare zabala sortu zen. Olek izan zuten garrantziaren eta indarraren lekuko dira urte batzuetan lanean batera aritu ziren 72 burdinolak.

Horien artean zeuden Gabiriola, Renteriola, Gabiola eta Suerrin.

Ola horien artean garrantzitsuena eta handiena Añarbeko ola izan zen. Ola hori, 1568. urtean hasi ziren eraikitzen herriko lurren hegoaldeko muturrean, Urumea ibaiaren ondoan.

Olan langile askok lan egiten zuten. Beraz, auzo txiki bat sortu zen olaren alboan, eta baseliza bat eraiki zuten. Gaur egun, guztia, Añarbeko urtegiaren azpian dago.

Renteriola burdinola, berriz, gaur egun Fanderiako errota dagoen leku berean zegoen.

Koadernoan olen garrantzia deskribatzen duen testu zati bat ipini da, irakurketarako.

*Kaira iristen ziren itsasontziek mea ekartzen zuten herriko oletara. Ola horietan burnia egiten zuten.*

*Burniola asko zeuden herrian, urte batzuetan 72 izatera iritsi ziren.*

*Oiartzun eta Pontika errekaen ondoan eraiki zituzten.*

*Horietako batzuk ziren: Gabiriola, Renteriola, Gabiola eta Suerrin.*

*Fanderiako errota dagoen lekuan zegoen Renteriola.*

*Ola garrantzitsuena eta handiena Añarbekoa izan zen.*

*Langile asko zituen Añarbeko olak, horregatik auzo bat eta basiliza eraiki zuten bere ondoan.*

*Orain dena Añarbeko urtegiaren urpean dago.*

Behar bada ikasleren batek ezagutzen du olaren bat, Legazpiko Mirandaola, adibidez. Horrela bada, han ikusitakoa azaltzeko eskatuko diogu. Horrela ez bada, material osagarrietan baduzue oletako lanei buruzko ikus-entzunezko bat.

Ondoren, olako elementuen zerrenda bat proposatzen zaio. Hala ere, elementu guztiak ez dute zerikusia olekin. Zeintzuk ote?

*JARDUERA 1: Ezabatu olari ez dagozkion hitzak:*

*Koadernoko 18. orrialdea.*

## **28. ZABORRAK**

Hiribildua handitzen ari zen, eta lanbide bateko zein besteko jarduerak ugaritzen. Beste arazo bat sortu zen, zaborrena.

Jendeak, ohi bezala, zaborrak ibaira eta portura botatzen zituen. Ez zuen askorako balio izan Udalak plazaratu zituen ordenantzak. Ordenantza horiek zaborrak uretara botatzea debekatzen zuten.

Hala ere, jendeak zaborrak ibaira eta itsasora botatzen jarraitu zuen, eta horren ondorioz, portua eta itsasadarra lehortzen joan ziren pixkanaka-pixkanaka. Urteen joan-etorrian zaborrak arazo izaten jarraitu du. Eta arazoa gure egunetaraino heldu da.

Beranduago, industrializazioa hazten ari zenean, zakarrak etxeetako txapako sukaldeetan erretzen ziren, batik bat. Nahiz eta herrian bazen “zakarrak” izeneko lekua Pekineko lantegiaren (gaur egun Pekingo etxeak dauden lekuan) ondoan, zakar biltegi gisa. Garai hartakoa da koadernoan eskaintzen den testuak deskribatzen duena.

*“ Pekinetik haruntzago, “zakarrak” izeneko zabor biltegia zegoen. Kaleetatik “zaborraren gurdia” pasatzen zen. Gurdi horrek, bi gurpil zituen, tapak eta baita kanpaiatxo bat ere. Mando batek tiratzen zuen.*

*Jendeak egurrezko kaxoi batzuetan jaisten zuen etxetik zaborra. Txapazko sukaldeetan ahal zuten guztia erretzen zuten, zaborretarako ia guztia errautsa zen. Horregatik, “zakarrak” lekuan ez zegoen usain txarrik”.*

Irakugai hori irakurri ondoren, hausnartu dezakegu talde txikietan edo talde handian zaborrei buruz, gure egunetara iritsi arte.

*JARDUERA 1: Eta zuek, zer egiten duzue zaborrarekin?*

*Koadernoko 18. or.*

## **29. ZABORRAREN BIDEA**

Badakigu beste garai batzuetan zaborrek zein ibilbide egiten zuten. Eta gaur egun guk sortzen dugun zaborrak, zein ibilbide egiten ote du?

*JARDUERA 1: Ba al dakizu zein bide egiten duen zaborrak? Marrazkiz adierazi.*

Seguruenik, gure ikasleen elkarrizketetan dagoeneko atera da San Markoko zabortegearen gaia. Behar bada batzuk han izan direlako, eta, behar bada, polemika handia eragin duelako gaiak batez ere hainbat auzotan.

Ikastetxean AGENDA 21 lantzen baduzue agian gai horren jakinaren gainean izango dira, bestela San Markoko Mankomunitatearen orriaren helbidea duzue. Gaian sakondu nahi izanez gero, hemerroteketan bada hainbat ikuspegitako nahikoa informazioa. Gaia ezagutzen duten pertsonak ere gonbida ditzakegu taldera.

*JARDUERA 2: Zergatik ez ote zuten zabortegea nahi?*

Baina egunero zabor asko pilatzen jarraitzen dugu gure inguruan. Zaborrak arazo izaten jarraitzen du guretzat. Hainbat esperientzia badaude gure

inguruan: birziklaia, atez ateko bilketa, erraustegia... Gai interesgarria eztabaida sortzeko gelan!

*JARDUERA 3: Baina zer egiten dugu zaborrarekin? Taldean eztabaidatu arazo horri buruz eta bururatzen zaizkizuen irtenbideak idatzi.*

*Koadernoko 19. orrialdea.*

### **30. HERRIKO HEDABIDEAK**

Albisteak eta berriak dira herrian gertatzen direnak ezagutzeko bideak. Albiste eta berri horiek hedabideetan argitaratzen dira. Orain, herriko hedabideak ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Bide batez, ikasleekin hausnartuko dugu zein hedabide erabiltzen ditugun, zein maiztasunez, zein dituzten gogokoen, zein hizkuntzatan erabiltzen dituzten eta abar.

*JARDUERA 1: Zein bidetatik jakinarazi daitezke albisteak?*

Ondoren, herrian ditugun hedabideen berri eskaintzen zaie diagrama baten bidez. Hedabide bakoitzari buruzko ezagugarri batzuk eta bakoitzaren azalaren irudia eskaintzen dira. Baita haien web helbidea internet bidez ezagutu nahi badituzte ere.

Etxean galdetzeko eta baten bat baldin badute gelara ekartzeko eska diezaiekegu. Ikastetxe gehienetan HITZA jasoko duzue egunero. Aukera polita da egun batzuetan egunkarian herriari buruz datozen albisteak ezagutzeko. Nahi izanez gero, beste hedabide batzuetan albiste berari eginiko jarraipenarekin aldera dezakegu.

Herriko albisteen eta gertaeren berri izateko herriko hedabideek duten garrantziaz ohartzeko balia dezakegu aukera.

#### **EGUNKARIA**

- HITZA Euskaraz. Eskualdeko albisteak eskaintzen ditu, gure herrikoak bi orrialdeetan: [www.oarsoaldekohitza.info](http://www.oarsoaldekohitza.info).

## **ALDIZKARIAK**

- **ON:** euskaraz. Hilabetekaria. Eskualdeko berriak eta erreportajeak eskaintzen ditu.
- **OARSO:** euskaraz eta gaztelaniaz. Urtekaria. Herriari buruzko informazioa, gertakariak jasotzen ditu. Herriko jendeak idatzia.
- **ORERETA:** euskaraz eta gaztelaniaz. Urtekaria. Herriari buruzko informazioa, gertakariak jasotzen ditu. Herriko jendeak eta taldeek idatzia.
- **BILDUMA:** euskaraz eta gaztelaniaz. Aldizkaria. Udalak argitaratzen du gai zehatzei buruz.

## **IRRATIAK**

- **ZINTZILIK IRRATIA:** euskaraz eta gaztelaniaz. Albistegia eta herriko jendeak egindako programez osatzen da. [www.zintzilik.net](http://www.zintzilik.net)

## **INTERNET**

- [erreterria.net](http://erreterria.net): Udal orria: albisteak, agenda, udal eta herriko informazioa.
- [Oarsoaldea.net](http://Oarsoaldea.net): eskualdeko orria: turismoa, merkataritza, ekitaldiak...
- [Oarsoaldekohitza.info](http://Oarsoaldekohitza.info): hitzaren edizio digitala. Eskualdeko eta herriko albisteak. Baita elkarrizketak, argazkiak, erreportajeak...

Duela urte batzuk izan genuen telebista ere, Oarso telebista. Gaur egun, hala ere, ez du emititzen.

Irudietan, hedabide horien azalak ikus daitezke.

*Koadernoko 20. orrialdea.*

## **31. PRESTA DEZAGUN GURE ALBISTEA**

Kazetariak idatzitako albisteak aztertu ondoren, prest gaude guk gure albisteak idazteko. Txantiloia bat eskaintzen da ikasle bakoitzak nahi duen albistea idazteko, benetakoa izan daiteke edo asmatua, norberaren gustura.

Ondoren, talde txikietan bildu eta taldekideek idatzi dituzten albisteekin irratiko albistegia prestatzeko eskatuko diegu. Ondoren, grabatu dezakete.



Nahi izanez gero, sintonia ipin diezaiokete, kredituak... ea noraino animatzen diren!

*JARDUERA 1: Zuk ere jakingo duzu herriko berriren bat. Presta ezazu egunkarian argitaratzeko. Ondoren, taldeka bildu eta idatzi dituzuen albisteekin irrati albistegia prestatu. Grabatu eta lagunei eskaini.*

## **32. HEDABIDEEI BURUZKO INKESTA**

Eta gure ingurukoek zein hedabideren bidez ezagutzen ote dituzte albisteak? Bada, jar gaitezen martxan ezagutzeko. Horretarako, inkesta bat egitea proposatzen dugu. Galdeketa bi galderen gainean egin daiteke:

- 1.- Zein hedabide erabiltzen duzu berriak jakiteko?
- 2.- Zein hizkuntza erabiltzen du?

Nahi dutenei galde diezaiekete. Galdetegia erabilgarriagoa izan dadin, material osagarrian taula bat duzue. Fotokopia dezakezue eta ikasle bakoitzari eman. Gero, galdetegia amaitzen dutenean, datuen laburpena koadernoko taulan jartzeko eskatuko diegu.

*JARDUERA1: Gure inguruko jendeak zein hedabide erabiltzen ote du berriak jakiteko... hasi galdezka eta osatu inkesta taula.*

## **33. INKESTAREN ONDORIOAK ATERATZEN**

Inkestak zer dio? Bakoitzak osatu duen taula begiratzuz ondorioa ateratzeko eskatuko diogu: zein hedabide da erabiliena, zein hizkuntza, zein hizkuntza da nagusiena hedabide bakoitzean...

Ondoren, gelako taula guztiak aldera ditzakegu. Nahi baduzue hustuketa lana egin dezakezue eta gelako taula osatu: grafikoak ere egin ditzakezue.

*JARDUERA1: Idatzi hemen taulako datuak ikusirik ateratzen duzun ondorioa.*

*Koadernoko 21. orrialdea.*

## **34. ATZERA BEGIRA**

Heldu gara 2. unitateko amaierara. Tenore egokia ikasi dugunaren gainean hausnartzeko.

Horretarako bi jarduera proposatzen dira:

*JARDUERA 1: Markatu esandakoak egia ala gezurra diren.*

*JARDUERA 2: Jakingo al zenuke esaten zein eraikuntza diren hauek?*

*Koadernoko 22. orrialdea..*

## **MATERIAL OSAGARRIA**

### **1. HARRESIZ INGURATUTAKO HERRIAN BARN**

Koadernoan landutako marrazki bera aurkeztu dizugu. Oraingoan, hala ere, zenbakiak dituzten erreferentzia batzuk ditu. Marrazkiarekin batera, erreferentzia horien izenak azaltzen dituen zerrenda duzu.

*JARDUERA: Irudia fotokopiatu eta hainbat jolas egin ditzakezue:*

*1. Irudia eta lekuen zerrenda zenbakirik gabe eta ordenarik gabe eman. Irudian begiratuta leku bakoitzari dagokion zenbakia asmatzea eska diezaiekegu.*

*2. Lehiaketa moduan: bi talde egin ditzakegu. Talde bakoitzari irudi bat eman diezaiokegu. Epaille lanak egiten dituen lagunak lekuen izena duten txartelak izango ditu. Txandaka, talde bakoitzari txartel bat irakurriko dio, taldekideek leku hori non dagoen, zein zenbakiri dagokion, asmatu beharko dute.*

*3. Zailtasuna handitu nahi bada, jolas bat zein bestea, leku izenik eman gabe egin liteke.*

**ZENBAKI BAKOITZARI DAGOKION LEKU IZENA:**

- UDALETXEA
- MORRONTXO
- NAFARROAKO ATEA
- HARRESIKO BASTIOIA
- IPARRALDEKO ATEA
- SANTA KLARA ATEA
- ERROTAKO KANALA
- UGARRITZAKO ATEA
- BEINGOERROTA
- ITSAS ATEA
- SANTXOENEA KALEA
- PORTUA
- LONJA
- MADALEN KALEA
- MADALEN ERMITA
- PONTIKA
- GALTZARABORDA
- MATXINGO
- UGARRITZAKO ZUBIA
- UGARRITZAKO ONTZIOLA

*Material osagarria:* [Harresiz inguratutako herrian barna](#)

## **2. HARRESIAZ KANPO**

Proposamen honek unitateari amaiera emateko balio dezake. Erdi Aroko herriaren gainean gaur egun ezagutzen dugun herria nola eraikitzen joan zen ezagutzeko, alegia.

Erdi Aroko grabatu horrek eskaintzen digun herriaren eta inguruaren ikusmira egokia iruditu zaigu herriaren garapena lantzeko.

Proposatzen dizueguna da irudia ahalik eta neurri handienez inprimatzea, mural bat osatzeko moduan, adibidez.

Beste aukera bat arbel digitala erabiltzea izango da, irudia arbelean ipini eta elementuak bertan osatzeko.

Unitatean landu dugunak, eta grabatuak eskaintzen dituen elementuak haurrak espazioan kokatzeko lagungarriak izan daitezke.

Gaur egungo auzoak koka genitzake grabatuan: Agustinak, Alaberga, Iztieta-Iztieta, Ondartxo, Olibet, Biteri kale ingurua eta abar.

Auzo horietako argazkiak erabiliz *collage* modukoa egin dezakegu, edo hurrek etxeak eta auzoetako elementu adierazgarriak marraztu ditzakete.

Kontuan izanik hurrengo unitatean auzo ez arituko garelara, sarrera egokia izan liteke hirugarren unitatearentzat.

Proposamen hau ere egokia izan daiteke egitasmoaren seigarren unitatea lantzen dugunerako. Egitasmo guztian zehar landutakoari gainbegiratu emango baitiogu eta orduan, gaztetxoek ezagutza gehiago izango baitituzte herriari buruz.

*JARDUERA: Hor duzu harresiz inguratutako herria itsas bazterrean. Itxura hori zuen Erdi Aroan. Hori oinarri hartuta eraiki ezazue, ipini auzoak, herriari gaur duen egituraketa emanaz.*

*Material osagarria: [Harresiz kanpo](#)*

### **3. HERRIA ERAIKITZEN**

Jarduera hau egiteko, komenigarria da 8. HERRI HARRESITUA jarduera egina izatea. Jarduera honetan eskaintzen den mapa Erdi Aroko herriari dagokio.

*JARDUERA 1: Proposatzen den jarduera hau egin ahal izateko herriko maparekin pixka bat aritzea komeni da. Horretarako, herriko plano eskuratu beharko genuke: kale-planoa izan daiteke edo toponimiako mapa. Lehenik eta behin, ikasleentzat ezagunak diren lekuak mapan kokatzen ari gintezke: bere etxea, ikastetxea, aitona-amonen etxea, eliza...*

*Kontuan izanik ikasleen bistara mapa konplexua izan litekeela, auzo aurkitzen, bereizten eta kokatzen hasi beharko genuke. Hortik abiatuta, kaleen izenei erreparatu diegu, puntu erreferentzialei, alegia (autobidea, errepidea, trenbidea, ibaia eta abar).*

*Maparekin behar adina jolastu ondoren, material osagarrian eskaintzen den mapa eskainiko genieke.*

*JARDUERA 2: Taldeka, garai hartako kaleak gaur eguneko mapan aurkitzen ahalegin gintezke eta, azkenik, gaur eguneko mapan Erdi Aroko mapa marka genezakeen. Horrek, ikasleei, Erdi Aroko herria gaur eguneko herriaren barruan dirauela ikusten lagunduko dio. Gutxi gorabehera egungo mapan kokatzen dutenean, Erdi Aroko mapako kaleei izenak jartzeko eskatuko diegu. Baina lehengo kale horiek bere horretan ote daude oraindik? Ea aurkitzen dituzten aldeak!*

*Gaur eguneko mapan, zetazko paperez estal dezakegu garai hartan urak eta itsasoak hartzen zuena.*

*Material osagarria: [Herria eraikitzen](#)*

#### **4. HERRIAREN MAKETA**

Orain arte ikusitako argazkiekin eta marrazkiekin eta jasotako datuekin herriko maketa bat egin dezakegu. Horretarako hainbat material erabil ditzakegu.

#### **5. MARI ZOZAIKOAREN IPUINA**

Koadernoko 13. orrian Mari Zozaiakoaren bizitza ezagutzeko aukera izan dugu. Bere bizitzak ez zuen amaiera ona izan. Hala ere, ipuin bat asmatuz, Mari Zozaiakoarentzat amaiera politagoa duen ipuin bat idazteko eskatuko diegu. Hemen duzue ipuin hori idazteko txantiloia.

#### **6. INKESTARAKO TXANTILOIA**

Koadernoko 21. orrialdean inkesta bat egitea proposatu zaie ikasleei. Inkesta egiteko ondorengo txantiloia eskaintzen dizuegu, nahi baduzue fotokopiatu eta ikasleei eskaini kanpo lana errazago egin ahal izan dezaten.

*Material osagarria: [Inkestarako txantiloia](#)*

## GEHIAGO JAKITEKO

### BIBLIOGRAFIA

#### ERDI AROA

- ZENBAITEN ARTEAN: Errenteriako Historia, Errenteriako Udala.
- BOZAS URRUTIA, E.: Errenteria kondairan eta ipuin-zaharretan, Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones S.A, Donostia, 1976.
- GOÑI GALARRAGA, Joxeba M.: Historia de Renteria, Caja de Ahorros Municipal, Donostia, 1969
- GAMON, JUAN IGNACIO: Noticias historicas de Renteria, 1930.
- ELBERDIN; LUIS: Orereta izena eta izana, Orereta, 1995.

#### NAFARROAKO ERREINUA

- OLAIZOLA, J.M; URZAINKI, T: La Navarra Maritima, Pamiela argitaletxea, Iruñea, 1999.
- ARAMBURU PELUAGA, A.: “Manipulaciones de la Navarra Maritima”, in Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria, 20 (2000ko abendua)
- SORAUREN, M.: “Navarra: el Estado Vasco, Pamiela argitaletxea, Iruñea, 1999.

#### ERDI AROKO ERAIKUNTZAK

- HAINBATEN ARTEAN: Errenteriako eraikuntza historikoak, Errenteriako Udaleko Argitalpen Zerbitzua, Errenteria, 1997.
- GONZALEZ CEMPELLIN, Juan Manuel: “Dorretxeak”, in Nora, 12 (2009ko urtarrila), 26-29

#### MARI ZOZAIAKOA

- LANCRE, PIERRE: Tratado de brujería vasca, Txalaparta argitaletxea, Tafalla, 2004
- ESTORNES LASA, B., M.: Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco, Auñamendi argitaldaria, Donostia.

### SAREAN

#### ORERETA-ERRETERIA

<http://hnoiartzualdea.wordpress.com/landutako-gaiak/>  
<http://oarsoaldeazagutuz.wordpress.com/2010/03/22/oarsoaldea-ezagutzeko-lezo-lh-ikastetxean-prestatutako-materialak/>

### ONTZIOLAK

[www.albaola.com](http://www.albaola.com)

### NABIGAZIOA

[http://bertan.gipuzkoakultura.net/eu/5/index\\_eus.php](http://bertan.gipuzkoakultura.net/eu/5/index_eus.php)

### MARI ZOZAIAKOA

[www.erreterria.net/es/ficheros/40\\_6342es.pdf](http://www.erreterria.net/es/ficheros/40_6342es.pdf)  
[www.vallenajerilla.com/berceo/lorilegio/inquisicion/procesologrono.h  
tm](http://www.vallenajerilla.com/berceo/lorilegio/inquisicion/procesologrono.htm)  
[www.euskomedia.org/aunamendi/147777](http://www.euskomedia.org/aunamendi/147777)  
[www.oarsoaldea.net](http://www.oarsoaldea.net)

### PERTSONAIK

<http://www.erreterria.net/eu/html/1/970.shtml>

### ORREA

[http://es.wikipedia.org/wiki/Juniperus\\_communis](http://es.wikipedia.org/wiki/Juniperus_communis)  
[http://commons.wikimedia.org/wiki/Juniperus\\_communis](http://commons.wikimedia.org/wiki/Juniperus_communis)

### NAFARROA

<http://www.nabarralde.com/>

### ERAIKUNTZA HISTORIKOAK

<http://www.erreterria.net/eu/html/38/1195.shtml>

### BURDINOLAK

<http://www.gipuzkoa.tv/play.php?vid=70>



## ZABORRAK

SAN MARKOKO MANKOMUNITATEA

[http://www.gipuzkoa.net/san-marcos/index\\_e.html](http://www.gipuzkoa.net/san-marcos/index_e.html)

BIGARREN ESKUKO MERKATUAK. Ikus-entzunezkoak:

<http://www.youtube.com/user/msanmarkos>

## **GOMENDATUTAKO IRTEERAK**

Torrekua dorretxea

Txintzarri Elkartea

Albaola ontziola